



HERRIKO HISTORIA EZAGUTZERA EMATEKO

Hernandorena Kultur Taldea osatu dute Zizurkilen; 'Sustraiak' izeneko monografikoa argitaratzen dute bi hilean behin >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-10-30

VI URTEA 1.546. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

BIGARREN SAIOA UKITU EXOTIKOAREKIN

TOLOSA Erresuma Batuko, Hungariako eta, lehen aldiz, Taiwango koruak ariko dira gaur Abesbatza Lehiaketan 2



Estoniako Tallingo Kontserbatorioko abesbatza Felix Zabalaren Ave Maria abesten, atzo, Leidor aretoan eskainitako emanaldian. I. TERRADILLOS

Ekitaldiz beteriko egitarauari ekingo diote bihartik aurrera 'Udazken Kulturala'-ren baitan

IKAZTEGIETA Bihar Angel Cuerdoren ikus-entzunezkoa izango da ikusgai; datozen ekitaldiak azarorako eta abendurako antolatu dituzte 5

EDURNE PASABAN MENDIZALEA

«Une horretan erabakitzea zaila zen, baina onik itzuli behar zen»

TOLOSA Udaberriari saiatuko da Kangchenjungarekin 3

«Era askotariko bidaiak» daudela azalduko du Angel Cuerdok

OREXA Kultur Hamabostaldiaren baitan hitzaldia emango du gaur 6



Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 40. Abesbatza-Lehiaketa
Urriaren 29tik azaroaren 2ra

Urtero bezala, bere Gizarte Ekintzaren bitartez, kutxak laguntza eman dio aurten ere Tolosako Abesbatza-Lehiaketari, beronen 40. Edizioa babestuz, gure herriaren musika, kultura eta balioak zabaltearren.



gizarte ekintza

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



Bigarrenen ere beste hiru koru

Kultura » Erresuma Batuko, Taiwango eta Hungariako abesbatzen polifonia eta folklore saioak izango dira gaur ikusgai.

INIGO TERRADILLOS

Estonia, Hegoafrika eta Finlandiako abesbatzen emanaldiak ireki zuten atzo 40. Abesbatza Lehiaketa. Polifonia eta folklorea aritu ziren, eta gaur ariko diren hiru koruak ere sail berean ariko dira. Erresuma Batuko Chantage, Taiwango Formosa Singers eta Hungariako Cantemus Mixed Choir izango dira, 19:30ean, Leidorren.

Chantage

- **Jatorria.** London (Erresuma Batua).
- **Zuzendaria.** James Davey.
- **Ahots nahasiak.** 19 emakume eta 19 gizon.
- **Historia.** 1999an eratu zuen Ja-



Londongo Chantage abesbatzako kideak emanaldi batean. HITZA

mes Davey, eta berehala nabarmendu zen Londoneko gazte abesbatza bizienetakoa bezala. Musika esparru zabala hartzen dute; perkusioarekin eta estilo garaikideko ezohiko erreperitorioarekin esperimentatu du. 2006an BBC Radio 3 Choir of the Year Competition-ean irabazi zuten.

Egitaraua.
■ Polifonia: *The Cloud-Capp'd To-*

wers (Ralph Vaughan-Williams); *Rondo Laponico* (Gunnar Hahn); *Versa Est In Luctum* (Alonso Lobo); *Ave Maria* (Felix Zabala); *With A Lily In Your Hand* (Eric Whitacre).
■ Folklorea: *Chili Con Carne* (Anders Edenroth); *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Soule* (Javier Bello-Portu); *Coventry Carol* (Richard Allain); *Pseudo-Yoik* (Yaako Mantyjari).

Formosa Singers

- **Jatorria.** Taipei (Taiwan).
 - **Zuzendaria.** Julian Ching-Chun Su.
 - **Ahots nahasiak.** 18 emakume eta 14 gizon.
 - **Historia.** 1994an sortua. «Taiwango izaera abestian adieraziz, musikaren bidez mantenduz» esaldiak laburtzen du euren izarritua. Ekialdeko eta mendebaldeko musika estetikak azaltzen ditu. Japon, Estatu Batuak, Kanada eta Australian abestu dute. 2004an Taiwanen Arteen Sari Berezia eskuratu zuten, eta 2005ean Japoniako Nazioarteko Lehiaketan hainbat sari. 10 disko dituzte.
- Egitaraua.**
■ Polifonia: *Vere Languores Nostros* (Tomas Luis de Victoria); *Ave Maria* (Felix Zabala); *Nunc Dimittis* (Gustav Holst); *Expecting The Spring Wind* (Wei-dao Luo); *El Guayaboso* (Guido Lopez).
■ Folklorea: *The Hunter's Chase* (Yu-shan Tsai); *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Lua Lua* (Julen

Ezkurra); *The Dark Cloud* (Yu-Shan Tsai); *PKarimatanu Kuicha* (Ko Matsushita).

Cantemus Mixed Choir

- **Jatorria.** Nyiregyhaza (Hungaria).
 - **Zuzendaria.** Soma Szabo.
 - **Ahots nahasiak.** 18 emakume eta 18 gizon.
 - **Historia.** Soma Szabo 1988tik ari da koruarekin. Euren egitarau propioa sortzeko ahalegina egin dute. 2004ean Bela Bartok International Choral Competition-ean lehen saria eta sari nagusia lortu zituen. 2004ean Bela Bartok International Competition-ean 2. saria; 2006an Gorizako International Choral Competition-ean lau 1. go sari, bi bigarren eta hiru sari berezi, eta Grand Prixa ere lortu zuten.
- Egitaraua.**
■ Polifonia: *Ave Maria* (Felix Zabala); *Pastores Loquebantur* (T.L. Victoria); *Miserere* (Kodaly Zoltan); *O Hajnal, Hajnal* (Kocsar Miklos); *Daemon Irraepit Callidus* (Orban Gyrgy).
■ Folklorea: *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Ametsetan* (Javier Bus-to); *Aszi Szel* (Szabo Denes); *Matraikepek* (Kodaly Zoltan).

«Errazago sentiarazten da bertako hizkuntzan abestuta»

JULIAN CHING-CHUN SU » Formosa Singers abesbatzaren zuzendaria

Musika » Lehen aldiz ariko da Taiwango koru bat; gaur, Leidorren, 19:30etik aurrera, izango da Formosa Singersen emanaldia.

I. TERRADILLOS

Aurtengo Abesbatza Lehiaketan nabarmendu dutenetako bat Taiwango Formosa Singers abesbatzaren parte-hartzea izan da, lehen aldiz ariko baita bertako abesbatza bat. Julian Ching-Chun Su (Taiwan, 1956) koruaren zuzendariarentzat «ohore handia da lehiaketa honetan abestu ahal izatea».

Ikutu exotikoa jarriko diozuela zuek diote. Zer uste duzu emango diola zuen abesbatzak lehiaketari?

Nire ustez maila handia dago koruen artean. Gure kasuan, oso urrutitik gatozen abesbatza garen, nabaririk gabe da musikan desberdintasun hori, beraz, uste dut badugula Abesbatza Lehiaketari gehitzeko zer bait.

Ezagutzen al zenuten Tolosa eta bertako Abesbatza Lehiaketa?

Tolosa ez genuen ezagutzen, baina abesbatza lehiaketa bat bertan egin dela bagenekien. Entzunda genuen, eta ohore bat da bertan parte hartzea.

Parte hartu behar duten gainerako abesbatzen berri ba al duzue?



Julian Ching-Chun Su erdian, Formosa Singers abesbatzarekin. HITZA

Erresuma Batuko Chantage abesbatza eta Hungariako Cantemus Vocal Group ezagutzen ditugu, mundu mailan oso ezagunak dira, kalitatezkoak. Besteak ez ditugu gehiegi ezagutzen.

Euskarazko abestiak kantatu behar dituzte koru guztiak. Zer iruditzen zaizue?

Xabier Sarasolaren *Neskatx Ederra* da folklore sailean abestu beharreko bat. Askok gustatu zaigu. Gure ustez euskaraz abestea oso ona da, bai guretzat, bai eta ikuslearentzat. Horrela jendeak abestiaren emozioa sentitzea errazagoa izaten da. Gainera, abesti horretaz gain, beste hiru ere sartu ditugu egitarauan. Abestiarekin ikuslearengana errazago heldu nahi izateaz gain, hizkuntzarekin errespetua ere izan da aukeraketa hori egitearen arrazoia. Esaterako, Lizarran dagoneko kontzertu bat eskaini dugu, eta bertan ikusi dugu jendea gustatu zaiola hori.

Lau horiez gain, egitarauko gai-

nerako abestiak aukeratzea erraz izan al da?

Antolatzaileek 20 abestiz osaturiko zerrenda bidali ziguten, eta guk, horietatik gehien gustatu zitzaizkigunak aukeratu genituen.

Zer sentituko zenukete Lehiaketa irabaziko bazenu?

Oso zaila izango litzateke, baina asko gustatuko litzaziguke, eta ohore handia litzateke datorren urterean, Toursen, Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian parte hartzea. Kontua da, ez dakigula posible izango den koruko kide guztiak elkartzea, aurten ere zailtasunak izan baititugu; izan ere, 35 gara denera, baina azkenean 27 etorri gara, lan kontuengatik-eta ezinezkoa izan baitute askok.

Taiwanen jarraitzen al dute abesbatzen musika?

Oso abesbatza onak daude han, eta oso aktiboa da koruen jarduerara. Gainerakoan, pentsatzen dut hemen, eta gainerako lekuetan bezalako izango dela egoera.

Berrogeigarren aldiz



» Iritzia

Migel Zeberio
Abesbatza zuzendaria

Berrogeigarren aldiz, gure atean ditugu, munduko bazterretatik gurera, ezin esan epelera, etorriak; kantuarekin eta kanturako. Gu berriz, jada zain geundenok, koru musikaz egari, gure entzuteko grin ezin aseaz, lehiaketako gordinasun edo goxotasunei haginika eta hozka egiteko tematsu gaituzte.

Berrogei zenbaki potoloa iruditzen zait, ia nire bizitza osoa. Konkurtso honek urte guzti horietan markatu du bere tempo, haurtzarotik aldatzen ikusi ditudan haurren maiz gaituzten erakusle bihurtzeraino.

Berrogei urtez pairatu zuten diktadore tzarra gure aurreko belaunaldiak. Garai haien arratsen gogotsu ekin zion herritar talde baten euskal musikagintza, euskarazko kanten sormena, oro har euskal kultura plazaratu eta zabaldutako zuen jaialdia antolatzeaz.

Harrigarria dirudi hala nola, berrogei urteren bueltan Tolosa bezelako herririk batean, Lehiaketa honek duen mundu mailako sona izatera nola iritsi daitekeen.

Lau hamarkada hauetan zehar gure bizitzeko erak eta ohiturak

askotxo aldatu dira. Hastapenetako Lehiaketa xume hark, gogoz eta goxotasunez antolatutakoak, gaur egungoarekin alde itzela du; herrikoia, erraza, hurbilekoa zela esan daiteke. Aste honetan entzun ahal izango denetik berriz aipagarri izango lirake beste adjektibo batzuk bederen; espezialdua, lehiakorra baina agian herritarren gehiengoarentzat astuna.

Beste berrogei urtez sona eta ospea jaso eta gordeko baditu, ezin bestekotzat hartzen dut antzokiko atea herriari irekitzea; edukieta eta hauek eskeintzeko eran, musikaren esparruan bizi ez direnen gozamenerako formulak eskeintzea. Horren zabalkuntzan komunikabideetara jotzea ere ez da aukera txarra. Joan deneko aste buruan, Tolosan eginiko sei metrotako tarta erraldoiak ohiartzen nabarmenagoa izan zuen eta hau ez pentsa Lehiaketari buruz zer eta nola kontatu ez dagoelako denik. Haur, gaztetxo eta jende marxoso eta interesgarri ugari hartuko du ostatu Gipuzkoan, Lehiaketaren aitzakian. Eskeinitako den espektakuluak berriz, ezin besteko du entzulegoa, berez pareko jendea eta jakina horrelakorik izatekotan saldu egin behar produktua. Nori nabarmendu zaio azken egunetan Irrati, telebista edo prentsa idatzian jaialdia? Bertan gabiltzanok ere ez dugu oraino prentsa bulegorik aurkitu ez eta bertako eta kanpotar kazetariei harrera egingo dien ezer ere. Beraz aldarrikatu beharko da berrogei urteren ostean; Abesbatza Lehiaketa jalgi hadi plazara!



Hernandorena Kultur Taldeko kideak bere bileretako batean. AIURRI

Hernandorena Kultur Taldea sortu dute, herriko historia ezagutzera emateko

Zizurkil » Zortzi lagun inguru biltzen dira eta bi hilean behin 'Sustraiak' monografiako ateratzen dituzte.

IMANOL GARCIA

«Aspalditik topatzen ginen zenbait forotan beti Zizurkilgo jende berdintua eta pentsatu genuen gure artean zergatik ez genuen foro txiki bat sortzen bi zutaberen gainean: historia eta etnografia». Horrela deskribatzen du Hernandorena Kultur Taldearen kidea den Joxin Azkuek elkartearen sorrera.

Elkarteko kideen asmoa ez da «tesi handiak egitea», baizik «ikerketak txikiak egin eta horiek zabaltzea». Egiten duten lana herritarrei zuzendutakoa da. «Ez dugu egin nahi inongo ikerketa zientifiko eta unibertsitariorik», dio Azkuek. «Gaiak gure artean komen-

tatu nahi ditugu, bai historia eta bai etnografiaren aldetik, hasteko guretzat, eta gero horiek herritarrei zabaltzea».

'Sustraiak' monografiako

Hasiera batean hilero buletin bat ateratzea pentsatu zuten, baina azkenean bi hilean behin aterako dute. Gaiak orokorrak edo Zizurkil-ekin zuzenean lotutakoak izan daitezke. Lehenengo alean, 0 zenbakia jarri ziotena, Zizurkilgo herriaren historia laburbildu dute, «historikoki kokatu egin dugun». Bigarren alean, «Zizurkilgo herriarentzat interesa izan duena eta beti entzun izan dena, hau da, tren geltokiaren izenak zergatik izenean Villabona ere baduen» jorratu dute.

Aurrera begira, lanerako zere-rrerand badituzte beste gai batzuk: euskal sinbologia, Zizurkilgo armariari buruzkoa... «Mordoska bat badugu erdi egosita eta ateratzen joango gara», zehazten du

Hernandorena Kultur Taldeko kideak.

Sustraiak monografiako ateratzea da helburuetako bat, baina bestea «gure artean ordu eta erdiz solasaldi lasaia izatea da». Informazioa biltzeko hainbat iturrietara jotzen dute. Esaterako, tren geltokiaren inguruko gaia kideetako batek lehendik jorratuta zuen eta liburuak ere atera ditu. Lehenengo alea osatzeko, berriz, dokumentu orokorretatik atera zuten.

Sustraiak egunotan ari dira banatzen herriko etxeetara *Zer ote?* aisialdirako gidarekin batera, Udalarekin iritsitako akordio baten bitartez. Udalak ere laguntzen dio elkarteari, inprentako gastuak ordaintzeko diru laguntza emanez.

Parte-hartze irekia

Zortzi lagun inguru biltzen dira hilean bi aldiz, behin Zizurkil Goian, Iriarte kultur etxean, eta bestea Zizurkil Behean, Atxulondo kultur etxean. «Gure artean gaiak jorra-

tzen ditugu, guri interesatzen zaizkigunak edo jendeak mahai gainean jartzen dituenak», azaltzen du Azkuek. «Gero ondorioetako bat da *Sustraiak* buletina ateratzea da». Taldean parte hartzea irekia da eta gustatuko litzaieke orain direnak baino gehiago izatea.

Elkarteari Hernandorena izena jartzea otu zitzaion, Zizurkil Goian kulturaren arloan aritu zen Teodoro Hernandorena gogoratuz. Familiari baimena eskatu zioten eta hauek «ez zuten eragozpenik jarri, alderantziz».

Herritarrengandik jasotako iritzien arabera, *Sustraiak*-eko lehe-

Monografiako bai sakontze bai hizkera aldetik ulerterrezak izatea da helburua

nengo alea «gustura irakurri zutela, oso atsegina egin zitzaizela azaldu digute», azaltzen du Azkuek. «Hori da helburua, bai gaiari dagokionez, baisesakontze maila eta baita hizkerari dagokionez ere, ulertzeraz izan dadila eta ez adreilu bat. Irakurriko nuen beste bat ere pentsatu dezatela». Gai buruz gehiago jakin nahi duenarentzat, artikuluen bukaeran liburuen erreferentziak eta Interneteko zenbait helbide jartzen dituzte.

Xakeraren txokoa antolatuko dute Iruran larunbatetan

ERREDAKZIOA

Iruran ere xakearen txokoa antolatuko dute. Azarotik ekainera bitartean izango da. «Xakean jolasten ondo pasatzeko aukera bikaina» dela azaltzen dute bultzatzaileek. LH1 eta LH6 bitarteko ikasleentzat zuzenduta dago, baina familia osoak parte hartzeko pentsatua dago, klub antzekoa.

Azaroaren 15etik ekainaren 6ra antolatuko dute eta larunbatetan izango zen, 11:00etatik 12:00etara, liburutegiko gurasoen egonlekuan. «Erabat ludikoa, denbora pasatzeko», izango da eta ez da derrigorrezkoa larunbatero joatea, baizik eta nahi denean, inongo konpromisorik gabe. Karneta emango zaie partaideei, bat familia bakoitzeko, eta baita kamiseta ere. Txapelketa antolatzeko asmoa dute ekainean partaideen artean taldeka.

Izen-ematea 10 eurokoa izango da eta Irurako udaletxean edo liburutegian egin daiteke, azaroaren 6ra arte.

Irurako zenbait ikastaroetan parte hartzeko aukera dago oraindik

ERREDAKZIOA

Iruran dagoeneko hasi dira ikastaroekin, baina oraindik zenbaitzuetan aukera dago izena emateko. Esaterako, aerobik ikastaroan izena eman daiteke. Astelehenean eta ostegunetan izaten da, 15:30etik 16:30era.

Ziri-enkajearen ere aukera dago parte hartzeko. Astelehenero izaten da, 15:30etik 16:30era. Antzerkian ere izena eman daiteke. 8 urtetik gorakoek eman dezakete. Oraindik ez dago zehaztuta astelehenean edo ostegunetan izango den.

txokoa h

2 sarrera pare zozketatuko ditugu!

deitu eta eskuratu

Eskubaloiko europar txapelketa



'Udazken Kulturala'-ri bihar helduko diote, askotariko ekitaldiekin

Ikaztegieta » Bihar Angel Cuerdoren 'Che-ren bidaia' izango da ikusgai. Datozen ekitaldiak azaroan eta abenduan izango dira.

NEREA URBIZU

Udazkena Kultur Asteak eta ekitaldiak egiteko garai aproposa izaten da: egunak motzagoak dira, eguraldia hotzagoa da... Oraingoa Ikaztegietak prestatu duen egitarauari heldu beharko zaio, izan ere, bihar izango dute kultur egitarauaren lehen ekitaldia. Angel Cuerdoren *Hegoamerika motoan: Che-ren bidaia* ikus-entzunezkoa izango da ikusgai.

Bihar gauean hasi eta abenduren 24ra arte luzatuko dute *Udazken Kulturala*. Azken egun honetan Olentzeroren etorrera izango dute, iazko arrakasta ikusita.

Che Guevarak Argentinan egin zuen bidaia duela lau urte egin zuen Angel Cuervo tolosarrak eta hura ikusteko aukera izango dabera, bihar 21:30etik aurrera kiroldegian.

Datorrena azaroan

Udazken Kulturalak jarraipena azaroaren 7an izango du. Kasu honetan *Magia teilatueta*n emanaldia aukeratu dute (Txalo konpainiaren eskutik), haurrentzako aproposa izango den antzerkia izanik. Ondoren, bereziki gazte-txoei zuzenduta dagoen drogei buruzko hitzaldia izango da. Ez du esan nahi honek guraso edo beste



Che-ren biharko proiektioan ikusiko den irudi bat, lehen irudian. Drogei buruzko hitzaldia izango da azaroan, Herri Krosa bezala. Gaztain eta talo-jatea ere antolatu dute azaroaren 22rako. FABIOLA JUBIN / HITZA

edozein ezin daitekeenik joan, noski.

Baina helduentzako antzerkia ere izango da; horretarako astebeite itxaron beharko da, azaroaren 14an izango baita. Kasu honetan, *Bob, nor da Bob?* aukeratu dute. Jon Urrazaren eskutik izango da.

Kirolari ere lekua egingo diote Ikaztegieta, urteroko herri krosa izango baita tartean, zehazki, azaroaren 16an, Herrigintza elkarteak antolatuta.

Musika ez da faltako, baina horretarako azaroaren 21era arte itxaron beharko da...

» EGITARAUA EGUNEZ EGUN

Urriak 31, bihar

■ **21:30.** Kiroldegian, Angel Cuerdoren *Hegoamerika motoan: Che-ren bidaia*, proiektzioa.

Azaroak 7, ostirala

■ **17:00.** Magia teilatueta, haur antzerkia kiroldegian.

■ **21:00.** Drogak larru gorritan: 12-25 urte bitartekoentzat hitzaldia.

Azaroak 14, ostirala

■ **21:30.** *Bob, nor da Bob?* helduentzako antzerkia, kiroldegian.

Azaroak 16, igandea

■ **11:00.** Ikaztegieta Herri Krosa (Herrigintza elkarteak).

Azaroak 21, ostirala

■ **21:30.** Ikaztegieta Kantuz, kontzertua Ostatuan. Clara Urteaga, Irati Sorondo eta Garazi Egiguren.

Azaroak 22, larunbata

■ **19:00.** Gaztainak eta taloak.

Azaroak 24, asteazkena

■ **18:00.** Olentzeroren etorrera.

Laburrak

Gaur 18:00etan, doluari buruzko hitzaldia izango da

AMEZKETA » Gaur bertan, Amezketako balioaitzeko gelan Kutxak eskainita hitzaldi bat antolatu dute. 18:00etatik aurrera izango da eta *Afektibitatezko dolua: galarak onartzea* izena jarri diote hitzaldi honi.

Biharko Probintzialeko Alegialdeko pilota partidak

PILOTA » Bihar Alegialdeko hainbat herritan Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa jokatuko da. Tolosako Beotibar pilotalekuan Aurre-Saiaz pilota eskolakoen bi partida izango dira 21:00etan, senior mailan binaka. Ibarren ere 19:15ean jubilenen mailan binakako partida egingo dute. Amezketan 20:00etatik aurrera Zazpilturri pilota eskolakoek lau norgehiagoka jokatuko dituzte, kadeteen mailan eta seniorren mailan (binaka eta banaka). Alegian ordu berean Intxurre-Aurre-Saiaz (binaka kadeteetan) eta Intxurre-Zazpi-Ilturri (kadeteak banaka) ariko dira.


Mus Txapelketa azkarra antolatu dute etzirako

BEDAIA » Udazkenean berotasuna barrenean antolatu dute Bedaion. Giro epelean biltzeko plana egin dute etzi Artubi elkarteak. 15:30ean Mus Txapelketa azkarra izango da eta bikoteek 10 euro ordaindu beharko du: sarituak ere izango dira, azkenera iristen diren 4 bikoteek, hain zuzen. 20:00etan, berri, *Bob?* *Nor da Bob?* bakarriketa lana izango da, eta ondoren, gaztain-jatea bertsoari eta guzti.



Txikienek handienaren berri badute

ALTZO » Joan den ostiralean Altzoko Udalean Imaz Bertsolaria eskolako Haur Hezkuntzako umeen bisita izan zuten. Bertan, udaletzeko goiko solairuan Altzoko erraldoiaren arropak gertutik ikusteko aukera izan zuten: eskularruak, zatak, atorren bat eta beste jantzi batzuk daude, berak erabiliko zituzkenean tamainakoak, hain zuzen. Eskolako haurrek erraldoiaren bizitza, neurriak ikasten ari direnez, zein modu hobea gertutik ikustea baino. Gertutik ikusi eta bai, benetan handia, erraldoia zela konturatu ziren; argazkian ikustea besterik ez da. Udaleko idazkariak egin zien harrera herritar txikienei eta erakutsi zizkien herriko handienaren bitxikeria batzuk. «Gustura joango zirelakoan bai haurrak eta baita irakasleak ere, nahi duzen arte», Udalaren partetik. HITZA





Gaurko ikuskizunean ikusi ahal izango den irudietako bat, bertan Jubin eta Cuervo ageri dira Machu Pichun. FABIOLA JUBIN

Angel Cuerdoren hitzaldia izango da gaur Kultur Hamabostaldiaren barruan

Orexa » 21:30etik aurrera eskainiko du tolosarrak 'Hegoamerika motoz Cheren bidetik' izeneko ikuskizuna Kultur Etxean.

REBEKA CALVO

Pasa den astetik kultur ekitaldi ugari dituzte Orexan. XXI Kultur Hamabostaldia abian da jada, eta besteren artean hitzaldiak, kantaldiak eta gazta kata gidatua izan dituzte orain arte. Gaur bertan, ordea, bidaiari egingo diete lekua herrian. 21:30etik aurrera Angel Cuervo tolosarra izango da Orexan *Hegoamerika motoz Cheren bidetik* ikuskizuna eskaintzeko.

Orain urte batzuk bere bikotearekin, Fabiola Jubinekin, egindako bidaiaren emaitza da aipatu ikuskizuna eta bertan «orain lau urte urtebeteko lan-utzialdia hartu genuen emazteak eta biok eta urte

bete hori kontinente desberdinetatik eginiko egonaldietan banatu genuen. Lehenengo etapa Asia hegoaldean izan zen, bigarrenagoa Amerika hegoaldean eta hirugarrena Afrika hegoaldean, hau da hegoaldeak aukeratu genituen bidaiari egiteko», esan du Cuervok.

Cheren pausoak jarraituz

Gaurko hitzaldian hortaz, bidaiari hartako gora beheren berri eman go du tolosarrak eta ETBrako egin bideoa ere eskainiko du: «Ikuskizunean Che Guevararen pausoak jarraitzen izandako gure esperientziaren berri ematen dut; hau da, Cheren esperientziatik abiatutako gure abentura kontatzen dut. Gure helburua 50 urte pasata Chek bisitatu zituen lurralde horiek zenbat aldatu diren ikustea zen. Hasiera batean aurkezpen txiki bat egiten dut, galdera batzuk ere botatzen ditut jendeak arreta horretan jarri dezan eta ondoren gure esperien-

tzia erakusten diet. Bukatzeko solasaldi txiki bat egin ohi dut», azaldu du.

Jendea bidaiatzera ere animatu nahi du Cuervok ikuskizun hauen bidez, «era askotako bidaiak» dau eta bere hitzetan: «Guk geuk egin genuen bidaiari hori ez da aparteko bidaiari izan, ez dago gutxiengo batzuen esku bakarrik. Ikuskizun honetan behar bada, bi aspektu jorratzen ditut, zentzu honetan; alderdi soziokulturala eta bidaiariarena. Hau da, jendea modu desberdinetan bidaiatzera ere animatzen ditut, diru gutxiarekin ere bidaiari onak egin daitezke eta. Aukerak zabaldu nahi ditut».

Cuervo bera honen adibide garbia da, haur txiki bat du eta beste baten zain dago bikotea, horrexegatik irailen familia osoarekin joango da bidaiatzera, horrela, bide batez, era honetako bidaiari nola egin ahal diren erakutsiko du elarik ikuskizun desberdinen bidez.



Kulturarteko Topaketak, aurrera

IBARRA » Jatorkin Elkarteak Palestinaren inguruan antolatutako Herrien Arteko Kulturarteko Topaketak aurrera jarraitzen dute. Atzo Lidon Sorrianok palestinarrek bizi duten egoeraren inguruan mintzatu zen eta gaur berriz, Fernando Rojo ariko da, 19:30ean Kultur Etxean. Tolosarrak Ekialde Ertainean bizitakoak ekarriko ditu gogora. Era berean, Jon Cazenavek eta Asier Reinok Palestinan egindako argazkiekin osatutako erakusketa ere ikusgai dago. Arratsaldeetan bisita daiteke, 15:30etik 21:00etara. r.c.



Proiektuen berri eman diote Olanori

BELAUNTZA » Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko burua, izan zen atzo Belauntzan. Mariano Lazkano alkateak, Eduarne Arbelegi zinegotziak eta Udaleko Iker Urbina arkitektoak egin zioten ongietorria eta herriko beharren berri eman zioten. Lazkanok esandakoaren arabera, herriari badituzte berri beharrek zenbait toki, horien artean eliza, baserri bideak, eskola zaharra eta herriko hainbat lokal. Alkatearen hitzetan «herriaren beharrei eta erabakiei» erreparatuta zenbait zaharberritze lan egin behar dituzte eta horien berri eman zioten Olanori. r.calvo

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

«Mendi bati ezin zaio hiltzailea deitu, gu sortu baino askozaz lehenago hor aurkitzen ziren»

ALBERTO ZERAIN › Alpinista

Tolosa › Oargiko Mendi Hamabostaldian hitz egingo du gaur Alberto Zerainek K-2 mendiaren inguruan 19:30etik aurrera.

ASIER IMAZ

Everest igo zuen lehen arabarra da Alberto Zerain (Gasteiz, 1961). Ondoren Makalu, Lhotse, Gasherbrum II eta Hidden Peak igo zituen. Iragan uztailearen amaieran, bakarrik, K-2 (8.611m) mendia igo zuen. Jaitsieran gurutzatu zituen alpinistak, elur-jausi baten ondorioz hil egin ziren edo izozturik erreskatatu behar izan zituzten. Gaur horren inguruan hitz egingo du arabarrak Oargiko Mendi Hamabostaldian barnean.

Hitzaldia edo proiektzioa eskainiko duzu gaur Oargi elkartearen 19:30ean. Zertaz hitz egingo duzu bertan?

K-2 eta Broad Peak mendien inguruan hitz egingo dut, nahiz eta interesgarria K-2rako igoera izango den. Han bizi izan genituen esperientziak kontatuko ditut. Bai hurbilketa edo gerturatzea, baita kanpamenduko klimara egokitzea nola izan zen eta abar. Broad Peak-aren oinarriko kanpalekuan egoki klimaratu nintzen, nahiz eta mendia igozteko saiakera ustelairten zitzaidan. 10 egunetara, bakarrik K-2ra abiatu nintzen.

Bakarrik?

Bai. Hemendik abiatu nintzenean hori argi nuen, K-2ra bakarrik joan behar nuela.



XABIER ALZOLA

Helikopteroz joaten dira batzuk oinarriko kanpamendura?

Behin joan jaitsi nintzen helikopteroz, eta beste aukerarik izan ez nuelako. Oinarriko kanpamendura oinez joaten naiz normalean. Helikopteroa tartean badago, nire kasuan, seinale txarra da; aberiaren batekin itzultzen naizela esan nahi du horrek. Broad Peak gailurreko oinarriko kanpalekura gerturatzeke, beheko herritik 4X4 batean irten ginen. Baltoroko glaziarretatik aurrera oinez hasi ginen eta 6 edo 7 egunetara iritsi ginen beheko kanpalekura (5.000 m). Handik K-2 mendiko oinarriko kanpamendura bi ordutara ginen.

K-2rako igoera 21 ordutan egin zenuen?

Hirugarren kanpalekutik gailurrera eta berriro hirugarrenera jaitsi nintzen denbora horretan.

Azkar.

Bidea zabaldu beharra zegoen, sokaren bat jarri eta baita jendearekin itxaron ere. Denbora normala dela esango nuke. Botilaren Lepoa deitzen zaion pasabidean batzuekin elkartu nintzen eta hauek itxaronegogon nintzen, laguntzen. Behin zati hau pasa ostean aurrera egin nuen, nire errotimora, euren niretzat oso segurua ez zela ikusi eta erabaki nuen, eta eskerrak horri.

Behin gailurra zapaldu eta...

Gailurra berezia izan zen, K-2 mendia zelako. Hala eta guztiz ere, beti zalantza horrekin zaude. Aurretik pentsatzen duzu, «nire eskura dago, aukera handiak ditut», baina momentu guztietan errespetu handiarekin jokatu behar duzu. Duen altuera, azken metroetako zailtasuna, istorioak...

Ez zaude ados baina 'Mendi Hiltzailea' deitzen diote hainbat komunikabidek K-2ri.

Ez nago ados. Mendiak gu sortu baino lehenago zeuden. Betidanik dute xarmangarritasun hori eta ezin zaio mendi bati hiltzailea deitu. Guk geure buruari erroka batzuk jartzen dizkiogu eta ezer gerta ez dadin gauzak neurtu eta zaindu beharra daukagu.

Gailurrean 40 bat minutu eta ondoren jaitsiera. Gurutzatu zenituen alpinistek amaiera tragikoa izan zuten azkenean. Nola gogortzen duzu gailurretik beherako hori guztia?

Igo eta izugarriko poza sentitu nuen, hor goian zaude, gailurrean. 40 bat minutu eta gero jaitsiera egin nuen eta jaisten ari nintzenan, zer ordu zen kontutan hartuta, gailurretik jendea nahiko urrun ikusi nuen oraindik. Zer edo zer gerta zitekeela pentsatu nuen baina momentu horretan ea gauzak ondo egiten dituzten pentsatzen duzu. Beheko kanpalekura jaitsi nintzen eta ez nekien ezer. Hurrengo egunean hasi nintzen historia tragikoa pixka bat ezagutzen. Momentu horietan ez dakizu ziur ezer eta 3 egunetara jakin nuen han gertatua. Gauzak hasieran nahasi xamarrak izaten dira, gero egunetik egunera argitzen doaz eta jendea hil dela jakiten duzu. Nola hil den eta abar. Baina gauza ilunak daude, eta ziur oraindik ere egongo direla.

Laugarren kanpalekuan nahasmena nagusi zela aipatu izan duzu. Horren ondorioz hirugarrengoa geratzea erabaki zenuela.

Laugarrenetik beharrean hirugarrenetik igo nintzen gora. Han jende asko zegoen eta altuera horietan jendea behar den moduan ibiltzen zenik ez nuen ikusten. Ez dut esango guztiak baino batzuk behintzat bai. Zerbaitek esan zidan hirugarrenetik irteteko gailurrera, ez joateko gora, handik askoz zailagoa izango zela sumatzen nuen. Nahasmen handia zegoen, izan ere, denok helburu bera genuen eta sasoi haietan aukera gutxi zeuden gailurrera joateko. Aukera bakan horietan jende multzo handia biltzen zen denok genuen grina horrekin. Nik irakurketa hori egin nuen eta oso argi nuen nola aurre egin azken eguneko oztopoari.

14 handiak egin zituen lehenak, Reinhold Messner-ek, «altuerango turismoa» eta «askorengan dohain eza» nabaritzen direla aipatu du, horregatik gertatzen omen dira horrelako tragediak?

Bere hitzak dira, nik ez nituzke hitz horiek esango. Horrelako tragedia handi bat gertatu denean hori mina egitea da, besterik ez. Nik ez nituzke horrelako hitzak erabiliko.

Bizi pasarte berri



» Herrira begira

Asier Arzallus
Saskibaloijokalaria

Nere laun haundie den Aimar Sagastibeltza bezela, tarteka HITZAN idazteko aukera eskeini ditek eta gustu haundiz kontatuko dizkizuet nere gora beherak ibilbide berri hontan.

Bi urte Almerian (Andaluzia) pasa ondoren aurtan Galiziarako bideta hartu nun, A coruña eta etorri nitzen hain zuzen. Aldaketa nahiko haundie izan zen, batezue eludli


aldetik ikusita, ze Andaluziko klima lehorretik hemengo hezetasunera pasa naiz, beño Leitzarra izaki ohittue nau euri ta hotzea eta etzait oso zalle in egie esan.

Leyma Basket Coruña da gure talde izena, eta Leb Plata izeneko ligan parte hartzen du. Pasa den urten mailaz igo zen taldea da eta aurrekontu bajunetako euki arren oso ongi hasi giñun delboraldie. Azken bi partiduk galdu ondoren gauzek pixkoat okertu zaizkiu beño gor aiga lanen ta esperot berri martxa onen sartzea. Liga oso orekatue dau ta pare bat partidu irabazita goien jartzen za, beño aldi beren bi galdu ezkeo zuloatik berta zoaz ebai. Jokatutako partiduk eta izan dien emaitzak ikusita gauz bat garbi ikusi du, eztaula alde haundik talde guzin arten, ezin da iñor faborito garbitzat eman partidu baten

aurretik. Pertsonalki maila ona ematen ai naiz, beño oaindik guztiz adaptatzea falta zait talde berri- ra, eta eunetik eunera gehiora joango naizela pentsatzen dot.

Kirol arlotik kanpo esan behar dot oso gustora naua hiri hontan. Taldekidek eta bertakoek oso ongi hartu naua eta hola askoz errega- goa da bizimodu berrira ohitzea. A Coruña erdin bizi naiz taldekide batekin, bost minutura daukeu Riazor (entrenamentu ta partidu- tako kiroldegie), beraz ezin hobekio kokatuk gaude.

Orokorren dena oso ongi dila esan dezaket, beño abuztuk 13tik, hau da, Leitzeko pestetatik hemen nau, ta famili eta launek faltan botatzen die, hemendik agurtu nahi nittuzke. Enteatu gabe eguberrik gañen dittu ta laister Leitzen izan- nen naiz...



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



14°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Amezketan.** 20:30ean, ezker abertzaleak deituta herri batzarra balioanitzeko gelan. Gaiak: hau-teskundek, ildo berria, hemendik aurrera zer... Irekia da bilera.
- **Asteasu.** *Eutsi!* filma ikusi ahalako da udaletxeko zinema aretoan 20:00etan.
- **Tolosa.** Azaroaren 8an izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria, Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 telefono zembaketan.
- **Tolosa.** Azaroaren 23an Cabarceno parkera (Cantabria) irteera antolatuta du Ttenttek taldeak, edozeinentzat irekia. Izen-ematea, San Frantzisko parrokian 18:00etatik 19:30era. Informazioa www.ttenttek.es webgunean.

Musika

- **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketa: Leidorren 19:30ean polifonia eta folkloreak Chantage (Ingalaterra), Formosa (Taiwan) eta Cantemus (Hungaria) abesbatzak.

Kultur Hamabostaldia

- **Oresa.** *Hegoamerika motoz Cheren bidetik* ikuskizuna aurkeztuko da ganbaran, 21:30ean.

Hitzaldiak

- **Tolosa.** Alberto Zerain mendizaleak K-2 (8.611 m) mendiaz proiektzio eskainiko du Oargi mendia elkartean 19:30ean, Mendi Hamabostaldiaren barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuz-ozoa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Elur malutak... uste baino lehen

Tolosaldea-Leitzaldea »

Zuriturik esnatu ziren atzo Leitza inguruko mendiak, baita Aralar ere; erruduna haize polarra da.

ERREDAKZIOA

Ezustean harrapatu ditu asko lehen elurteak. Oraindik armairuan udako arropa dutela eta pasa den asteetako hego haizeak buruan. Baina aste honetan negua heldu da gurera; horren adierazle, atzoko paisaia Leitza inguruko mendietan zein Aralarren: zuri-zuri.

Atzo termometroek ez zuten 10 graduko muga gainditu egun osoan eta elurra 700 metrora bota zuten. Gainera, euriak ere ez zuten festa galdu...

Datozen egunetako iragarpena

Gaurkorako euria iragarri dute adituek, baina temperaturek zertxobait egingo dute gora, elurra 1.400 metroko altuera geratuko delarik. Eta biharko, errezeta berdina: euria eta hotza, temperaturek berriz ere behera egingo dutelarik.



Elurrak Leitza inguruko bazterrek zuritu zituen atzo; postal ederrak benetan. ASIER IMAZ

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAko Tolosa eta Leitza bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info